

# BANDOA

## EZ bota suziri edo suzko artefaktuak NO lanzar artefactos pirotécnicos

2022. urte amaierara iritsi garen honetan Pasaia Udalak oroitarazi nahi dizue pasaitar guztioi ezen ondo pasatzeko eta familiarekin egoteko egunak badira ere, arduraz jokatzeko egunak ere badirela.

Eta herritar bakoitzaren erantzukizunera jotzen dugu batez ere **Gabon Zahar gauean suziri edo horrelako suzko artefaktuak bota EZ daitezten**. Gogoan har ezazue guztiok gure etxe gehienak egurrezkoak direla herrigune zaharretan eta edozein txinpartak oso egoera larria sortuko lukeela. Era berean denok dugu gogoan Trintxerpeko sutea eta horrelakorik ez genuke berriz ikusi nahi gure udalerriko inongo barrutitan.

Era berean, artefaktu piroteknikoak botatzeko asmoa dutenei gogorarazi nahi diegu baimena behar dutela eta hori Ertzaintzan izapidetu behar dela, Eusko Jaurlaritzaren Barne Sailaren eskumena denez gero, eta aipatutako baimenik gabe edozein gertakari jazoz gero, kontuan hartu arduradunentzat erantzukizun zibil eta penalak sortuko liratekeela.

Direlako artefaktuak bereizi gabe eta kontrolik gabe pertsona, animalia eta ondasunen aurka botatzea delitutzat jotzen da eta hortaz zigorgarritzat.

Jakinarazi, Udal hau harremanetan jarri dela Ertzaintzarekin kontrolak jartzeko udalerririk guztian gau horretan, lanean diren udaltzainen errefortzu gisa.

Gogoan izan, une honetan, baso suteak izateko arriskuan gaudela.

Ospa dezagun alaitasunez urte amaiera, baina batez ere Trintxerpen 2014an beren etxeak galdu zituzten herritarrak gogoan izanik, has dezagun urtea alaitasunez eta maiz erremediorik ez duten egoerak deitoratu beharrik izan gabe.

Llegados a este fin de año 2022 desde el Ayuntamiento de Pasaia quisiéramos recordar a todos/as nuestros vecinos/as que aunque estas son fechas para divertirse y para celebrarlas con la familia y los/as amigos/as son sobre todo días para actuar con responsabilidad.

Y apelamos a la responsabilidad de cada uno de nuestros vecinos/as y visitantes para que, **sobre todo en Nochevieja NO lance ningún tipo de artefacto pirotécnico o elemento que conlleve el uso del fuego**. Recordar a todos/as, que la mayoría de nuestras casas en los cascos antiguos son de madera y que cualquier chispa acarrearía una situación de una gravedad incalculable. E igualmente grave sería un incendio en cualquiera de los distritos que conforman nuestro municipio situación por todos conocida y sufrida sobre todo en Trintxerpe.

Asimismo, comunicar a quien lance artefactos pirotécnicos que se requiere una autorización que se debe tramitar en las dependencias de la Ertzaintza, ya que se trata de una competencia del Departamento de Interior del Gobierno Vasco y que cualquier incidente provocado por el lanzamiento de elementos pirotécnicos sin contar con la mencionada autorización acarrearía consecuencias civiles y penales al/los reponsable/s. El uso indiscriminado y descontrolado de estos elementos lanzados contra personas, animales o bienes es considerado delito y como tal punible.

Informar, que este Ayuntamiento se ha puesto en contacto con la Ertzaintza para efectuar controles en todo el municipio como refuerzo a los agentes de la Guardia Municipal que estarán de servicio esa noche.

Recordar que en estos momentos nos encontramos en alerta por riesgo de incendios forestales.

Celebremos con alegría el fin de año, pero sobre todo recordando a nuestros/as convecinos/as de Trintxerpe que en 2014 perdieron sus casas, celebremos entrar en el 2023 e iniciemos el año con alegría y sin deber lamentar situaciones en muchos casos irreversibles.